

## ERANDIOKO ESTABLEZIMENDUETAN ERABILTZEKO FAMILIEI BANATUTAKO EROSKETA- PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

(Urriak 1 – urriak 31)

## ERANDIO BONOA EDIZIO BERRIAREN OINARRIAK

(Urriak 1 – abenduak 31)

1. Bono bakarra banatuko da Erandioko etxebizitza bakoitzeko. Bono hau udalerriko urriko aldezkarian txertatuko da.

2. Bono bakoitzak 5€-ko balioa izango du, eta onuradun pertsona bakoitzak 20€-ko erosketa egin beharko du 5€-ko deskontua lortzeko, beraz, 15€ jarrita 20€-ko balioa duten produktuak erosi ahal izango ditu.

3. Bonoak erabili dituzten pertsonen ez zaie eskudirua itzuliko erosketa ez bada bonuaren baliora iristen.

4. Ezin izango dira bonoak pilatu, ez programa honetakoak ez beste programa batekoak, erosketa-ticket edo emandako zerbitzu bakar batean.

5. Bonoak 2020ko urriaren 1-etik 31-ra arte soilik erabili ahal izango dira programan atxikitutako establezimenduetan. Epe hau igaro ondoren ez dira onartuko formatu honetako bonoak.

6. Hobaritutako zenbatekoaren itzulketaren eskaera HAZ-Herritar Arreta Zerbitzuan egin beharko da (Antonio Trueba zeharkalea, 2 -Meso kalea, 20) eta bertan instantzia eskaera orokorra zein salmentaren egiaztagiriak, hau da, bonoa erosketa-tiketarekin batera, entregatu beharko dira.

Hobaritutako zenbatekoaren itzulketa astean behin eskatu ahal izango da.

Hobaritutako zenbatekoa, dokumentazioa frogatu ondoren, 15 eguneko epean bidaliko da banku-transferentziaz.

1. 3 bonu-formatu editatuko dira, eta guztiek % 25eko hobaria izango dute, Udalak bere gain hartuko duena. Atxikitzeko unean, establezimenduak formatu bakarra aukeratu beharko du:

- 7,5 euroko bonuak, 10 euroko erosketak egiteko.
- 15 euroko bonuak, 20 euroko erosketak egiteko.
- 37,50 euroko bonuak, 50 euroko erosketak egiteko.

2. Udalak bonu bakoitzean bere gain hartzen duen hobaria alde aurretik ordainduko dio onuradunari. Hobaria gutxienez 300 eurokoa eta gehienez 600 eurokoa izango da, atxikitutako establezimendu kopuruaren arabera. Zenbateko horrek eta aukeratutako bonuen formatuak mugatuko dute atxikitako establezimendu bakoitzari eman beharreko bonuen kopurua.

3. Kanpaina hasi baino lehen, binilo itxurako bereizgarri bat eta esleitutako bonuak dituzten taloitegiak emango zaizkie atxikitako establezimenduei.

4. Baldintzak betetzen dituzten atxikitako establezimenduetan, kontsumitzaileek bonuak erosi eta trukatu ahal izango dituzte urriaren 1-etik aurrera, eta bonuak agortzean amaituko da, edo, gehienez ere, 2020ko abenduaren 31n.

5. Bonuak atxikitako establezimenduan erosiko dira, erosketa egitean edo zerbitzua ematean, eta une eta leku berean trukatuko dira.

6. Bona erosi ondoren, ez da onartuko zenbatekoa aldatzea edo itzultzea.

7. Erosketa ez bada bonuaren baliora iristen, establezimenduei ezingo zaie eskatu eskudirua itzultzeko.

8. Ezin izango dira bonoak pilatu, ez programa honetakoak ez beste programa batekoak, erosketa-ticket edo emandako zerbitzu bakar batean.

9. Kanpaina honetan, kontsumitzaileak nahi adina bonu erosi ahalko ditu.

10. Kanpaina amaitu ondoren, eta 2021eko urtarrilaren 15a baino lehen, edo jasotako bonuak agortzean, taloitegia eta salmenta- edo faktura-tiket bakoitzaren kopia eta hari aplikatutako bonu originala eraman beharko dira HAZ-Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (Antonio Trueba zeharkalea 2 - Meso kalea 20).

Erabili gabeko bonuak ere eraman beharko dira; horrek kanpainaren hasieran alde aurretik jasotako diru-sarreraren zati proportzionala itzultzea ekarriko luke